



EUSKAL IDAZLEAK

Bada ondo danari eta egin bear
danari eutsi ta eutsi deutsagu.

Añibarro'tar A.

Añibarro'tar Antonio, O. F. M.
(1748-1830)

15
Añibarro'tar Antonio, O. F. M.
(1748-1830)

Euskal Idazleak



Antolatzaile:


Etxebarria'tar Juan Anjel

Derio'ko Seminariori:

«Errikoak (erderakadaren batzuk esanarren) lautatik irutan guk baiño obeto euskeraz berba egiten dakielako; bada guri, geure ikaste-urteetan, azaletik euskaldunak dirudien Seminarioetan, irakatsi-bearrean aztu eragin deuskue ain premiñazkoa dogun berbeta eder au».

Azkue «Jesusen Biotzaren illa».

Depósito legal: BI 1.730 - 1969



Areatza (Villaro) Añibarro'ren jaioterria

AÑIBARRO'tar ANTONIO
(1748-1830)

Villaro'n, Areatza'n, jaio zan Bizkaia'n 1748-garrenean. Prantziskotar-praille sartu Bilbo'n eta gero beste ainbat lekutan egona. 1790-garrenean Zarautz'era joan zan egoten betiko. Bertako prailleak erririk erri ibilli oi ziran misioigiñan. Olako ibillaldietan Añibarro'k euskera erritarren abotik jaso ta oarretan bildu egiten eban, bere etorria ta idaztankera guztiz aberastu artean.

Agertutako idaztien artean ospetsuena «Esku-Liburu» deritxona da. Axular'en Geroko Gero bizkaieraz ipiñi eban, baita iztegi ederra eta Ebangelioak alkarturik gertau ere, beste idazti askoz gaiñera.

Bere gaurko onetan oargarriena auxe aurkitzen dogu:

Aditz berenkoiak erruz darabilz, ederrak eta jatorrak. Ba'daratzazuz eta olakoak nork ez artu gogoan eta agoan? Danak eta diranak ere esaten ditu geienetan. Baiña ontan beti bat, bai oraingoari eta bai lengoari buruz. Mendiburu'k, ostera, lengokoari buruz ba'da, beti zana eta ziranak. Aurrerago aldia eta esaldia atzerago gurean... Itzak garbi daki ataraten erritarren arrobotik: katutu eta

antzekoak, ez al dira benetan politak, bitxiak? Izen-lagunak ere gaurkoak baiño errezago dakar mingaiñera: otzorra, jaramoneza eta abar. Esaera erreza eta bakuna darabil. Aspergarria esan dau urliak. Ez nik uste. Barruko kezkaen gozagarria bai, aldiz ...RAINÑO bagarik, raiño beti be. Eta REAN atzizkia ez dau aztu oraindiño. REAN eta TIK naste ipiñi, bata bestearen ondoan: gurutzereanik eta antzekotsuak.

Eta guztien gaiñetik mixiolari bergiña eta piña agertzen yaku. Euskalerriarenganako eta Jaungoikoarenganako maitasunak errea.

Betoz aren atzetik gaurko praille-kumeak, ark egiñiko urratsak galdu barik. Izena alde batera itxita, izana bear dogu gorde eta iraunerazo.

Etxebarria'tar Juan Anjel

1

Orra bada, zegaiti, iakinik bateti, Bizkaiko erritar maiteen gei onaren barri, eta onetariko asko misino-ostean irakurten ikasten azten direala, biotza ausirik besteri, Bizkaiko euskeran dotrinako liburu apurraak baino besterik ikusten enebelako; eta uste izanik beste bateri, arima asko, liburu santuen bitartez Iaungoikozkoak izatera elduko litzatekezanak euren iakineza itsuagaiti datozala deabru okerraren adugaiztoko agindupekoak izatera; go-goari emon neutsan, atrapau ta iadietsi al neukezan astiune ta eraaldiak, erle egile, aituaren antzera, emon bear nituzala: eta onek, lorarik lora batuten daben letxe nik bere egin bear nituzala aletinak, liburutxu baten arimeen onerako batzandu ta alkartuteko, liburu askotan zabaldurik, eta deslai legez dabiltzazan adibide eskaari ta debozinogarri bearrenak (1).

2

Etzirean nonbaite-bere alperrak izan ene zelanalango lanak: eze bietan argiratu orduko, beingoan, arrapaka legez, saldu zirean liburu guztiak (2) ta arrezkero bere bakerik emon gura izan ezteuste eske ta eske.

Azkenez esan bear deutsut eze, liburu onetan ikusiko dozula, batzuetan esaten dala *egizu*, *egidazu*, *egiozu*, *degizula*, eta beste batzuetan *eikezu*, *eikedazu*, *eikiozu*, *deikezula*, etc., Lenengoak esaten dira gauzea ordu berean egin bearra danean: bigarrenak, barriz, geroagogarrenean egin bearko danean. Alantxe esan daroe, baita ondo baino obeto, gure bizkaitar baserritarrak(3).

Bizkaitar eurak, erri apur batzuk-ez besteetan, Nafarrak, eta ara-bere geiago Franziaiko euskaldunak esaten dabe *ian*, *iausi*, *io*, *iagi*; eta alan esaten eben antxina ta antxina andi bagarik, euskaldun guztiak. *fa-je-jia* ez dabela euskereak berea, ta bai erderati erantsia, ao batez dirauskue Larramendik, Kardaberasek, Herbasek, D. Ioan Antonio Zamakolak, eta, berba baten, gauzea ondo adituten iaken guztiak (4). Bada ondo danari, eta egin bear danari eutsi ta eutsi deutsagu. Agur onenbestegaz (5).

Aurrera eroan egizuz, bada, gaur bere nigazko ardura aleginezkok;

Bizkortu nagizu, banakutsu nagi-epelik, adierazo eta ulertu eragidazu zer egin eta zer itxi bear dodan Iaun-

goikoaren borondatea egiteko, gaurko egun au ondo emoteko, ta eriotzagino bere grazian ta bakean irauteko. Amen.

«Baia eztakit zelan: il ninteke bekatu mortalean. Eta onen (6) erorik edaten dodaz ur otza legez zarra zarra bekatuak? Eta onen erraz biurtuten naz atzera leengo okerrerietara? Ze sinismen ta ze zentzun da nirea? Ai ze sorgoturik nagoan!»

Dakusdala ekerreko aldeatati deabru madarikatua pozarren ozta: liburuto anditzar bategaz eskuetan, «zeine-tan (7) darakusdazan banaan banaan, eta bakotxa berez, ene bizi guztiko gaiztakeriak eta okerkuntsa eskergaak».

Emoten baiako sententzia, igongo dau (8) zerura ari-meak Aingeruen laguntzan.

Eztakus, eztantzu, eztabil, eztau zirkinik, ez txitik egiten (9). Bakarrik dago inok iaramon eta ikusi gura bagarik.

11

«Emoikeozu gaur zure buruari nekeren bat».

12

Zeinbat okerreria, neure erruz aztuak eta iaramonezak, agertuko direan an! Zer erantzun neike nik orduan?

13

Lanen bateri badaragoiozu, egin Iaungoikoa gogoan dozula, ta berari atsegin emotearren.

14

Argiro dazaut, ondu ezik, betiko galduko nazana (10).

15

Iaungoikoak asko ta lar egin eban, ni zerura eroatearren. Zeinbat arimako ondasun ta grazia, ni beraganatuteko! Zeinbat dei gozo, zeinbat argi-aldi eder, ni iratzaruteko! Zeinbat sakramentu ta osasungarri, ni ondu-teko ta zeruratuteko! Beti ebillen bera nondik eta nora ni irabaziko ninduan, bein laztan gozoz, bestean zemai bildurrezkoakaz. Berein bider (11) esetsi ta ekin eustan deika; baia nik bein bere erantzun eta iaramon ez neutsan.

16

Nai estarian zurezean egiteko, nai agirian bestek «zakusazala».

17

Gozotasun eta zorionok eukiko dodaz neurri betean, ta gonburu (12)».

18

«Au alan izanik badot nik zerurako usterik (13). Bai aurki».

19

Deabruak mila asmu ta labankerigaz putza ta gantza emoten deust neure buruari emeko atsegin zoroetan, eta bekatu gauzetan lasa emonda (14) etse au infernurako egiteko: eta «nik sarri ta askotan entzutca emon daroiot».

20

Eurokaz beste bagarik naz naiko bestean (15) aberatsa: besterik gura ezto, ez bear bere.

21

Ezkontzagea bazara, auxe dozu erarik ederrena erabagiteko.

Konfesoeari baderitxo sarri konfesau, komulgau bear dozula egin itsu itsuan bere esana: baia galerazoten deutsunean bere, ez muzinga ibili, mukerrak erakuzten.

Gatx guztien sustraia alperkeria izan doa (16) eta agaiti ez bein-bere bein-bere alperrik egon. Azkenez yakin bear dozu eze, zelangoa dan bizitzea, alangoa izan doiala eriotzea; eta San Bernardok dirauskun legez, bizitzeari darraiko (17) eriotzeak.

Orregaiti bada ondo entzunak izan doaz gure eskabideak, parkatu ioakuz bekatu arinak.

«Eguna bagarik (18) egongo litekez Eleizateetan mesemolearen begira».

Indazuz (19) negarkorrontaak, ene bekatuen loi atsi-
tuak garbietako.

«Egizuz (20), launa, guganantz zeure begi errukitsuok».

«Iraun eragidazu, arren eriotzaragino fede santu onetan»: gorderik Apostoluak erakutsi eusten zeure legea, eta «Doneane Bautistek» predikatu eustan penitentzia ta negarbidea, igon daikedantzat nosbait zero ederrera.

Zeru-lurren egilea ta irautzailea (21).

Begiak gora zeugana egiteko (22) biotzik ozta daukadala.

Eta aztutera aleginak egin bear dira (23).

«Premina andi bagarik bearrik zuk egin, edo besteri eragin badeutsazu: nai dala doan, nai alogerez, edo sariz; nai eztarian, nai agirian; bada guztietara da bekatu».

33

«Lau bost urterik gorantzako seme-alabaak, oean alkarregaz badaratzazuz (24)».

34

Inos katutu edo iakinaren ganera lar edan, edo kalte andia egingo eutsuna artu izan dozunez: edo inori alangorik eragin deutzazunez. Ea orditutea ekanduz izan daroazunez: ta iakinik tabernara, iletectara (25), ezteguetara eta fiestetara ioan da ardoan iausten zareala, orregaiti bere alango lekuetara eldu izan tzareanez.

35

«Bada nai gizonezkoak euretara dala, nai emakumeak emakumeetara, beti da bekatu».

36

Ibili izan bazara zirika, bultzaka, oraka, auska, itzulmurdika edo zapuzka (26) ta esan eikiozu beti, nor dan izentadu bagarik, zelango lagunagaz izan tzan, ezkonduagaz, ainbakoagaz.

37

Iakinik egon bear tzara eze, bazabiltze gasteak naastean batzaako dantzetara, iolasera, fiestetara, gau bigire-

tara, erroldara, arta-zurietara, linagintzeetara, karobietara, txakolin saltzeetara, ezteguetara ta alangoetara, etzareala garbi izango zuek alan uste izanarren (27). Eta arabere okerrago, bein ezkontzako berbea emon ezkeitio, ezkongei biok alkarregaz bazagoze.

38

Arriturik eta lotsea daridala imini nabe ene bekatu asko ta anditzarrak.

39

Angeruak eurak auspez, aurpegia dariela (28), bada-goz zeure anditasunaren aurrean.

40

O Iauna! Ze gitxia, ze prestu-eza, ze otz-orra, ta leorra (29) nazan zuri esker onak emoteko!

PANGE LINGUA-REN ANTZEKOA

Nire mina, kantaiozu,
nire Iaun iaubeari
nigaitik Sakramentuan
niretzat dagoanari,
ni odolaz erosteko
nigaitik il tzanari.

Guri emon iakun Iauna,
guretzako iaio zan:
gugaz bizi izanezkero,
guretzat il egin tzan:
guganik ioartorduan
gugaz bertan geldi zan.

Bere belurengo (30) gauban
bere gorputz-odola,
bere disipulu onai
berak eskuz emona,
beragaz gu bat gaitezat
bera da gure iana.

Berbo Iauna gizondurik
Berboa aragi da:
Berboak berba egin da,
Berboa da ian gauza.
Berbaz bada gora daigun
Berbo Iaungoiko Iauna.

O Sakramentu andia!
O ze Iauna an dagoan!
O ze ikara, ze bildurra!
O ze lotsa zor iakan!
O Angeruen ogia!
O nok gose zeinkezan! (31).

Andia Aita Iaungoikoa,
andia da Semea,
andia Espiritua,
andia gure zorra.
Andia beraz daiogun
Andiari eskerra. Amen.

BESTE BAT SACRIS SOLEMNIS-EN IASAKOA

Bizi bedi Iesus
sakramentadua,
gure kanta santuz
txit alabadua.
Daiogun gogotik
Berari soinua.
Ea, erago poz pozik.

Iaun biotzekoak
il-aurreko gaban,
ogi ta ardao banak

Recopilacion de algunos terminos Guaraníes.

Guaraní en Guaraní: en el p. tom. seg.^o

Dedicar: equendu. Equim.
no: au. Con u. trubu. avo. abebaba.
Fendati, lero, laurupe, agueti añitiro enm
pustau, Abuac, trudu, amahuat suazon.
reputu. puvete quimera caritar. danz.
Abahu ombrazati. haze. paruru. Enaz.
no danzoc. elo muro. Jao kwentor jezo
kwender. Enazi. Enazi echer icheva.
aguanez. Enaz de diez. baranz. aba

Penthar baucub. Impofible. undatguera.
repori reque: tando. gubha.
Como de: danz. deu miton. entza.
Zuacdi und chot. Enam: avuro.
Faber: at spun. Imazo: Imena. Vabrivha.
Mira hri: bequina omb: Il. Lar: naitea.
Palatup veda, ecava. Tinck: lungua.
Lector: imawlen. Upha: accorte.
Natural pegru: baezoa. Imajip: baezoa.
Prevenir: pefate, manate, avate.
Reparacion: prehace. De la nada aimacok.
De nada nada: enon ta uvon baezoa.
Imenar: raguizea, equiquita.
Ais n ion: gapanate. Magon: pezele.
Palato: iangre. De don aire. amap enon.
Eniquitan. Abani. Avaca: dejavai.
L. kap. u. Vabwida opinalle. Equeraca.
ibofide. Anti, imaven. Eia hangan: uphi.
de juca. Abira, abirawon. Porozo, al.
juotazo: Nabuel. Copi: send bat. hale.
ito firm. Quere: fuwido. Cubel, equiga.
Nre utez. Quchias: em ur. icuzaz, ieu.
Pa. Ona aca, Ona buano.

Con Z se escriben las sig. y. y. y.

Guarua, jao siender. Enazi: puche. Pawi chay.
awi pleto. Equeto. Equitilla. Equitau.
Enonza, uriz. Enatoti. bultada. azquendi.
azquero: apruy aza. latza, seabata. Zorra.
pacira. Zala: alvado. putu. zocufu. abonata ozta.
Zale, zani, Enazi, awa pleto. tu lupita. aza, ozta.
Zelda, Equitua abacati. Zacola. pausa. zocub.
aspian. azti. alhoa. mizqueta. el alhoa. benchit.
Zacoma. Zacua. Zorra. Pezoa. Ortacia.
Zaya abebado: aspian.

S

Con S se escriben las sig. y. y. y.

Siquitua. Enchi. an. cau: aro. itaba. ican.
Jao kwentor. icheva. Nai ty. Ita. Quzo.
hota. gus abimado. eran. Nguri. Enari ainchi.
paivta. icheva. En-later. lefo. aroz. En.
puca bat. billedo. igus huit. Soleli. deuru. la.
cuf: deupre abitaia. maba. acian. Siba. batulu.
evucha. abog urpa. Soleli. itana. bera. abimado.
paivta. Saliba. haca. cuti imaper. puca bat.
etabli. Enari. bildaba. saena. evcha. Ortaza.
berca. Enari ocet. ro lela. parvta. alhoa: aiio.
apaidhu. aveta. abonati. hita. au poner.
paivta. bat. puca bat. jab bagin. gus. vater.
avira hujita. Sazia. Enri. Uora. En matre.
ibritia. Itana. ent huata. Stopira.

artuta zinoan:
ene gorputza au dot,
au odola: ta alan
ian-edan berau guztiok.

Ostia baten, a!
benetan daukazuz
Iaungoiko-gizona,
bere odol-gorputz,
ta arima ederra.
Ian edan egizuz.
Orren begira da Iauna.

Illun, larri, baldan,
argal zagozana,
erdu; ara bertan
zuk bear dozuna.
Kristoren gorputzak,
Ondo zuk artuta,
emongo deutsuz indarrak.

Dirautse Iesus-ek
meza-emoileai:
artu au zuenzat,
baita emon onai.
Ai ze eskuikuna
iatorken gizonai,
Angeruak eztaukena!

Angeru-ogia
da gizonarenzat:
Iaungoiko-gizona
da nai dabenentzat.

Aberats ta pobre,
Errege ta ezak,
ona guztiok erdue.

O Aita-Semeak,
Espiritu onaz
irurak Iainko bat!
Zagoz orain gugaz
geure biotzean,
gero guk orregaz
ikusteko zu zeruan. Amen.

43

Asi gaitzezan esaten
Iesusen neke penak,
larritasun, gogortada,
eriotza, ta minak:

Lagun daiogun guztiok
Iesuseri negarrez,
Kalbarioko bidean
doianean ain nekez.

Azotez galduezkero
geure Iesus laztana,
kondenau dau Pilatos-ek
krutze baten iltera.

Lepoan krutze astuna
ezarri-ta, daroe
iltera Iesus laztana
gaizto oker bat legetxe.

Iesus datza luze luze
lurrean krutzepean:
bota dabe zure erruak,
Aremen (32) nor tzarean.

Negarrezko begiakaz
dakus Amak Semea,
galdurik, ta il bearrez.
Au bai zala nekea!

Emen Simon Zirineo
laguntzat emon eutsen,
Kalbariora bagarik
Iesus il ze lekien.

Beronikak siketarren
Kristoren izerdia,
eun garbian atera dau
Iaun onen aurpegia.

Begira ze astuna dan
bekatuen pisua,
bigarren aldiz egin dau
gure Iesus lurrera.

Iesus alan ikusita,
negar daigun guztiak
bekatu egin izana.
Alan dirausku berak.

Iru bider iausi Iesus
zugaitarrik lurrera;
ta luzatzen ezteutsazu
gogor orrek eskua?

Lirio lorak ederrez
iantziten dituzana,
geratu da gu ianztarren
bilos bilosik bera.

Esku-oinak untzakaz
krutze baten iosirik,
eskegita dago Iesus
minez ilten nigaitik.

Emen il tzan aij gugaiti
gure Iesus maitea:
ta zelan minak ezteusku
kenduten bizitzea?

Semearen gorpu ilak,
untzeak, eta arantzak
emon deutsez Mariari
min-ala gutziz latzak.


Umezurtza triste eginik
gaizook lotu gara:
obian daukagu Iesus,
gozo bagarik Ama.

Ain errime estu eben metarrira ze, istanda egin eu tsan eskuturretati odolak.

Zer, gero ikusi ebanean Seme laztan bera guztien gorrotogarri eginik, eta direanak (33) ebilkozala, len-bait-len munduti kendu gurarik, eta kenduteko aleginak egi-ten: darabildela batak irri, besteak barre, besteak kinu, onek deungaroak esan, ak irauna astunak eta geienak io ta io barregarri?

Eguzkia ilunduten da: irargia odoldu: lurra ikaratu, ta atxak apurtu: baia ez Amari, ez Semeari ezteutse gizonak errukirik arean artuten, eta ilita gero bere, Amaminez ganeztu onek dakusala, Semeari albo lantza gogorraz urratuten deutse, Semeari albo lantza gogorraz urratuten deutse. Bai beintzat, Ama, bai: oraintxe, aurki, esan lei, itxasoa baizen andia dala zeure larritasuna.

Arako kurutzereanik (34) eretsita.



Zarauz'ko prantziskotar-etxea

ASTELEN-EGUBENETAN ESANGO DIREANAK
MISTERIO GOZOZKOAK

Iesus onaren Ama maitea,
grazia eske gagozuz,
bost misterio gozoz beteak
kantetan lagun zakiguz.

Gogo guztiaz esango dogu
lelengo misterioa:
zuzendu gaizuz zerura beti
Birjina biotzekoa.

LENENGO MISTERIOA

IAUNGOIKOAREN SEMEA GIZON EGITEA

Zeruetarik ekarri eutsun
Angeruak albistea,
Zugan aragiz iantziko zala
Ait'Eternoaren Semea.

R. Abe Marien amarreko au,
Aita gureaz batean,
Birjina eder maite berari
esaten asi gaitean.

BIGARREN MISTERIOA

SANTA ISABEL IKUSTEA

Iainkoaz seindun zeu zoaz, Ama,
lengusinea ikusten;
ta aren semea iaio bagarik
saltoka dabil pozarren.

IRUGARREN MISTERIOA

IESUKRISTOREN IAIOTZEA

Iaio zanean zure Semea
zu zeu dontzeila itxirik,
geldi ginean gizon guztiak
ondasun gozoz beterik.

LAUGAREN MISTERIOA

AMA BIRJINEA ELEIZAN SARTUTEA

Ierusalengo Eleiza santan
Iesus eskini zenduan:
berari opa gaizuz guztiok,
beretzat artu gagian.

BOSKARREN MISTERIOA

IESUS GALDUTA IRUGARREN EGUNEAN AURKITUTEA

Galdu ezkeru, idoro zendun
Eleizan zure Semea;
poz onegaiti gura ezpekizu,
gu bekatuan iltea.

MISTERIO DOLOREZKOAK
MARTITZEN-BARIAKUETARAKO

Iesus onaren Ama maitea,
grazia eske gagotzuz;
bost misterio minez beteak
kantetan lagun zakiguz.

Gogo guztiaz esango dogu
lenengo misterioa,
zuzendu gaizuz zerura beti,
Birjina biotzekoa.

LENENGO MISTERIOA

IAUNAREN ORTUKO BIOTZ-LARRIA

Iesemaniko ortu santuan
egoan Iesus larririk,
odol-izerdi laban labana
emoten gorputz guztirik.

BIGARREN MISTERIOA

IESUSEN AZOTE IKARAGARRIAK

Bost mila azote artu zituzan
gure bekatuakaiti:
ze gatx andia dan bekatua
atera daigun emeti.

IRUGARREN MISTERIOA

IAUNARI ARANTZAZKO KOROIA IMINTEA

Arantza zorrotz, gogor, latzakaz
koroaturik burua,
nonbait Iesusek kendu nai euskun
buru eretxi galdua.

LAUGARREN MISTERIOA

IAUNAK KURUTZEA EROATEA

Krutze astun bat lepoan, eta
lapur gaiztoen erdian,
eroan eben Iesus maitea
Kalbarioko bidean.

BOSKARREN MISTERIOA

IESUS KURUTZEAN IOSIRIK ILTEA

Krutze-ganean untzez iosirik
an galdu eban bizia:
gure arimak gal etzitezen,
igaro eban guztia.

MISTERIO GLORIAZKOAK
DOMEKA-EGUASTEN-ZAPATUETARAKO

Iesus onaren Ama maitea,
grazia eske gagotzuz:
bost misterio gloriazkoak
kantetan lagun zakiguz.

Gogo guztiaz esango dogu
lenengo misterioa:
zuzendu gaizuz zerura beti,
Birjina biotzekoa.

LENENGO MISTERIOA

IESUKRISTOREN BIZTUERA

Neken ostean, Ama maitea,
ikusi zendun bizturik
ilen arterik zure Semea,
eguzki eder eginik.

BIGARREN MISTERIOA

IAUNAREN ZERUETARA IGOEREA

Berrogei egun igaro, eta
zerura igo zanean,
gloriaz bertan iarri izan eban
Aita bereak aldean.

IRUGARREN MISTERIOA

ESPIRITU SANTUAREN ETORREREA

Espiritu Santu Iaungoikoa
sutan zerurik etorren,
Apostoluak, ta ganekoak
amore-doeiz beteten.

LAUGARREN MISTERIOA

MARIA SANTISIMEAREN ZERUETARA IGOEREA

Iesus gozoak zu ikustarren
zeruan zoriondurik,
ara zaroaz gorputz ta arima,
Angeruz inguraturik.

BOSKARREN MISTERIOA

AMA BIRJINEAREN GLORIA ANDIA

Trinidadak iarri zinduzan
Seme Iaunaren aldean,
beti ta beti zu eukiteko
beste guztien ganean.

LABURPEN ONTAN AGERTZEN DIRAN

aditz berenkoiak

EDUN: indazuz, indazue.
 EGIN: egizu.
 EMON: emoikeozu.
 ENTZUN: dantzu.
 ERAGIN: eragidazu, ba'daragiozu.
 ERAGON: daragoiozu.
 ERAKUTSI: darakusdaz.
 ERATZAN: ba'daratzazuz.
 ERION: darit, darie.
 ERITXI: deritxo.
 EROAN: daroiot, daroazu, zaroaz.
 EZAGUTU: dazaut.
 IBILLI: dabil, ebilkozan.
 IKUSI: dakus, zakusaz, dakust, nakutsu.
 IRAUTSI: dirautse, dirausku.
 IZAN: etzitezen, zakiguz, lekien, natzatzue.
 JARRAITU: darraiko.
 JOAN: ioakuz.

itz bakanak

belurengo
 berein
 diranak
 Doneane Bautistea
 ezkontzage

gonburu
 iaramoneza
 irauntzaille
 katutu.
 metarri
 min-ala
 otzorra
 prestu-eza

esakera bitxiak

arpegia dariela
 ba-dot zerurako usterik
 begiak gora egiteko
 edan zarra zarra
 eguna bagarik
 emakumeak emakumeetara
 erri apur batzuk ez besteetan
 eske ta eske
 ez dau txitik egiten
 izan doa
 mukerrak erakusten
 jasa emonda
 naiko bestean
 nok gose zeinkezan

gai jakingarriak

Agintzeko era (aditzetan)	3
Ardantegiak	34
J-I soñuak	4
Jai-aldiak	37
Ordikeria	34
Umeen aziera	33

OARRAK

- (1) Entzuleen arimako onaz arduratuta.
- (2) Orrek esan nai du, mixioak zentzun andiz emoten zirala.
- (3) Erria oraindiño be euskera-maixua da.
- (4) Beste euskaltzaleak irakurri ditu, eta prantses espiritualistak ere bai, agian; baiña kontu gitxi darabil eta esan bere ez. Bereari eusten dautso.
- (5) Oraingo askok baiño zori ohea zuten, antza; gaurko agintzariak bestera sartzen dautse buruan eliztarrai, itxi euskerari ta...
- (6) Onen, orren eta aren edo ain, dagokiona bertan, ur edo urrun ba'dago.
- (7) Bertan edo esan bear leuke garbi-garbi izatekotan.
- (8) Igon bizkaitarrak, Mogel'ek-eta norkduna lez erabilten dabe.
- (9) Billa egizue ondoko erderatan au baizen eder dan esaera... iaramonezak: zer esanik ez, erdera guztiak baiño geiago balio dau.
- (10) —La barik —na: gauza jakin-jakiña danean.
- (11) Askotan.
- (12) Bururaino, ezinbestean.
- (13) Joateko usterik; izen-ixiltze bat dago or.
- (14) Lasai-lasai norberan guraz.
- (15) Zenbat gura.
- (16) Izaten da, izan oi da.
- (17) Jarraituten dautso.
- (18) Argitu baiño len.
- (19) Emon egidazuz.
- (20) Biurtu egizuz.
- (21) De Deo creante et elevante.
- (22) Joateko.

- (23) Egitera ikusi bear dozu esaten dau erriak, ixiltzea egiñaz.
- (24) Etzan-erazoten ba'dozuz.
- (25) Oraintsu arte izan da oitura illeteetan-eta jatordu bat egiteko emakumeak eurak bakarrik.
- (26) Erderaz sinonimia edo deitzen dautsoe orreri; euskeraz ez dogu zuen bearrik esatea lez da.
- (27) Orduko pekatutako leku txarrenak, gizarteko obena egiteko, alegia.
- (28) Auzpez, buruz bera edo; au esanguratsua goa da.
- (29) Otzorra, lotsorra, loiorra ta abar.
- (30) Azkenengo.
- (31) Nor izan leitekean zure gose.
- (32) Ara emen laburtuta neurria gordetzearren.
- (33) Guztiak; Mendiburu'k ziranak esango leukan.
- (34) -Rean=tik; emen bata bestearen ondoan jarri dau.

IDAZTI LAGUNTZAILLEAK

- Mitxelena, K. «Historia de la Literatura Vasca».—Mino-tauro.
- Billasante, L. «Euzko Gogo», 1956, Ibeltza-Otsailla.
- Billasante, L. «Historia de la Literatura Vasca».—Sendo.
- Azkue, R. M. «Morfoloía Vasca».—«Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco».—Editorial Auñamendi.
- Añibarro'tar Antonio, O. F. M. Bere lan osoak, an-emen agertuak eta Zarauz'ko Prantziskotarren konbentuan eskuz idatzirikoak.

AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri - Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjina ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak II
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz - Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuñiak (2-garren argitalpena).
12. Batikano II Batzar - Agiriak (Gizarte artuemonetako bideak)
13. Apuntes de Vascuence (Segundo Curso)
14. Lope de Vega - Bakar-Autuak
15. Liturji - Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano - Agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)
18. Lati-izkuntzaren joskera (Orixe)
19. Euskal Iztegi Laburra (B - D)
20. Kristau - Aziera (Batikano Agiriak)
21. Euskal Iztegi Laburra (E - F)
22. Basoko Loreak (olerkiak)
23. Lo ta Amets (olerkiak)
24. Apuntes de Vascuence (Primer Curso)
25. Katalunya'ko Olerkiak
26. Bidaztien Aterpea
27. Apuntes de Vascuence (Tercer Curso)
28. Euskal Iztegi Laburra (G - I)
29. Galburutan (Gallastegi'tar Kauldi)
30. Euskerazko Meza (Intxausti'tar Artur)
31. Humanae Vitae
32. Euskal Idazleak (I) Mendiburu'tar S.
33. Gabon - Abestiak (Intxausti'tar A - Gallastegi'tar K)
34. Españi'ko Olerkariak euskeraz
35. Prantzi'ko Olerkariak euskeraz
36. Españi'ko Olerkariak euskeraz II
37. Euskal Idazleak (II) Añibarro'tar A